

***“EUSKAL FORU-ZUZENBIDEA ETA
BERE ERAGINA ARAMAION”
2012KO OTSAILAREN 17AN***

I. AURKEZPENA:

Arratsalde on, jaun-andreok: iaz egitekoa zan orain egitera goazen EUSKAL FORU ZUZENBIDEARI buruzko jardunaldi hau. Orduan, mahai honetan hizlariak aurkezteko eskatu eustan alkateak. Eta hala egiteko nintzan.

Aurten zerbait gehiago eskatu deust. Andres Urrutia jaunaren jardunari bideak irekitzeko edo, foru zuzenbideari buruzko sarrera bat egitea. Egia esateko larritu egin nintzan ekitaldi honetako programa edo egitaraua ikustean. Bertan dino nik “EUSKAL FORU ZUZENBIDEAREN JATORRIA ETA ARAMAION HISTORIKOKI IZAN DUEN GARRANTZIA” argitu behar ditudala.

Hori horrela, hasieratik esan behar deustuet ni ez nazala foru zuzenbidean jakintsua. Historialaria bere ez. Horrek esan gura dau ezin izango deustuedazala jakintsu baten moduan argi eta garbi argitu foru zuzenbidearen jatorri zehatza, ibilbide historikoa eta, gutxiago oraindik, zer dala eta indarrean dagoan Aramaioko lurralde honetan. Datu batzuk jaso ditut eta

aurrez aurre jarriko deusuedaz, gainetik bada be, gai sakon honen nondik norakoei antza emon deiozuen.

II. BERBEN ESANGURA:

Aurrera egin aurretik esku artean dogun "EUSKAL FORU ZUZENBIDEA" esaldi barruko berbek zer esan gura daben edo zelan ulertu behar ditugun argitu beharra dogu:

A) EUSKAL: berba hau erabili izan dogu gure herria aita-tzeko. Berba hau 'euskara' hitzetik dator, hitz-elkarketak egi-tean 'r' 'l' aldatuz, 'aizkora' berbatik 'aizkolari' sortzen dan moduan, azken 'a' kendu eta azken 'r' 'l' bihurtuz. Beraz, 'euskararen herriko foru zuzenbidea' esan gura dau. Eta Euskal Herriaren barruan Bizkaiko 'foruak' edo legeria indarrean izan dauan lurraldea.

B) FORUA: berba hau dogu gaurko ekitaldi honetako ardatza. Zertzuk diran foruak, zelan sortu ziran, zelan iraun daben jakitea garrantzi handikoa dogu, mundu globalizatu honetan etorkizunik daukien jakiteko. "Foru" berbak esangura asko ditu. Batez bere honokoak:

1. Lurralde, komunitate edo pertsona bati emoten jakozan legeen edota arauen bilduma edo multzoa: **Nafarroa foru bidez gobernatzen da.**
2. Erdi Aroan lurralde, udalerri edo giza talde bateko jabeak edo jaunak emondako lege, eskubide eta pribilegioak: **erregeak fidelak ziren hiriei emoten eutsezan foru bereziak.**
3. **Lurralde batek mendez mende izan dituan legeak edota arau edo ekanduak batzen dituan liburua. Horrela, BIZKAIKO FORUA, Bizkaiko bizimodua bideratzeko kon-**

tuan hartu eta jarraitzen ziran ohitura edo ekanduak eta legeak batzen zituan liburua dogu.

4. Pertsona edo estamentu batek zerbait epaitzeko daukan ahalmena edo autoritatea: **ezkontza desegiten dauan elizaren forua.**
5. Pertsona baten gehiegizko harrokeria: **apalagoa izan behar da, eta ez foru handikoa.**

Guri une honetan interesatzen jakuna “**LURRALDE BATEK MENDEZ MENDE IZAN DITUAN LEGEAK EDOTA ARAU EDO EKANDUAK BATZEN DITUAN LIBURUA**” da. Baina, beti bere, liburu horretan datozan lege eta ohitura edo ekanduak herriaren gizarte bizitzan eragina izan daben adinean.

III. FORU ZUZENBIDEA:

“Foru Zuzenbidea” historia barruko hainbat jazoerak eraginda eskualde edo lurralde batzuetan indarrean iraun dauan eskubide zibila da; normalean familia, herentzia eta jabetasun-erregimenari buruzkoa izaten da, eta gutxiagotan obligazioei eta kontratuei buruzkoa.

Espainiako konstituzioak (1978) zuzenbide zibil propioa kontserbatu eta aldatzeko eskubidea emoten deutse Autonomia Erkidegoei; foruak izatea, sarritan uste dana baino sarriago ageri dan kontua da. Estatu barruko hamazazpi Autonomia Erkidegoen artean hamarrek foru zuzenbide propioa daukie; horrela, esaterako, gure artean Euskadiko Autonomia Erkidegoak eta Nafarroako Komunitateak.

Euskal Foru Zuzenbidea 1979ko Autonomia Estatutuko 10. artikuluan jasota dator, eta gaur egun 1992ko uztailaren 1eko Eusko Jaurlaritzaren lege bidez indarrean jarrita dago. **Bere ezaugarririk argiena Euskadiko Autonomia Erkidego osorako**

bakarra ez izatea da. Hiru foru zuzenbide ditugu: bat Bizkaikoa, beste bat Gipuzkoakoa, eta hirugarrena Arabakoa. Horrela:

- Gipuzkoan zuzenbide zibil bakarra dago probintzia osorako, nahiz eta ohitura berezi batzuk izan oraindik zehaztu ez diran toki batzuetarako.
- Bizkaian bi zuzenbide dagoz: bata, Zuzenbide Orokorra hirietan edota bertako alde batzuetan erabilia; bestea, Lurralde Laua edo Infanterria deitzen danean aplikatzen dan Bizkaiko Forua.
- Arabako zuzenbide zibila dogu nahasiena. Araban hiru zuzenbide zibil desberdin ditugu:
 1. Probintziako alde gehiengan (biztanleriaren %85a): Zuzenbide Orokorra (Gaztelakoa).
 2. Laudion eta Aramaion (biztanleriaren %8a): Bizkaiko foruak.
 3. Aiaran (biztanleriaren %5a): Aiarako Forua

Foru egoera desberdin hau ulertzeko gogotu daiguzan jazoera historiko batzuk:

1200: Gaztelako Alfontso VIII.ak Gipuzkoa konkistatu eban eta, halako kasuetan normala izaten zan moduan, Gaztelako erreinuari lotzerakoan bertako legeria ezarri eban.

1332: Arabako Kofradiako nobleak, ordura arte itun bidezko askatasunean bizi ostean, oso-osoan Gaztelako Koroaren pean jartzea erabaki eban, Kofradia deseginez. Urte batzuetan bertako legeak indarrean izanda gero, 1348an, Alfontso XI.ak Gaztelako zuzenbidea ezarri eban Gasteizen eta Araban.

- 1334:** Alfonsso XI.a Bizkaian sartu eta mende hartu gura izan eban, baina ez eban lortu. Bizkaitarrak ez eben indarrez etorri zana euren jauntzat hartu, eta bakeak egin behar izan zituan 1335ean.
- 1373:** Lehen aldiz **Aiarako forua** idatzi zan eta mende luze batean zehar indarrean izan zan. 1487an aiarrak uko egin eutsien euren foruari eta Gaztelakoa hartu eben, **oinordekoa askatasun osoz izendatzeko eskubideari dagokionean izan ezik.**
- 1799:** Esan dogunez, Espainiako konstituzioak Erkidegoei eskubidea emon eutsen Foru Zuzenbide bereziak indarrean jartzeko. Horrela, Euskal Foru Zuzenbidea 1979ko Autonomia Estatutuko 10. artikuluan jasota dator.
- 1992:** Historiako gorabeherak gorabehera, Bizkaiko Foruak indarrean jarraitu dabe gaur arte; azken egokitzapena edo barrizatzea 1992ko legearen bidez egin zan; bertan Bizkaiko Forua Laudion eta Aramaion indarrean jarraitzea onartu zan. Bertan argi esaten da Laudio eta Aramaio Bizkaiko Lurralde Lauko parte dirala, eta hori horrela, bertako biztanle guztiak bizkaitar forudun edo infantzoien egoera daukiela.

IV. BIZKAIKO FORUEN HISTORIA LABURRA:

Historialari batek gauzak argitzeko garrantzi handikoa dan honako hau dinosku: ***euskaraz idazten oso berandu basi zenez, eta antzinako bizkaitarrak ez zuten ez euren foruak eta legeak idatziz jaso beharrik izan, ez dira horretaz arduratu lehen hirietako foruak eta pribilegioak idazten basi ziren arte.***

Foru idatzien historia honela izan da gutxi gorabehera:

1. Bizkaian idatzirik ageri dan lehen forua Balmasedakoa da (1199); geroago etorri ziran: Bermeokoa (1236), Urduñakoa

(1284), Lanestosakoa (1287); Plentzia/Gamizkoa (1299), Bilboko (1300), Otxandiokoa (1304), Ondarroakoa (1327), Areatzakoa (1338), Durango eta Ermukoa (1372) eta abar.

2. Hiri batzuk foru apartekoak izateak eta gainerakoak halakorik ez izateak arazoak sortzen zituan Bizkaiko lurraldeko bizimodua bideratzeko orduan. Bertako jaunak antzinatik ahoz jaso eta jarraitzen ziran ohitura edo ekanduak idatziz jasotzeko eskatu eutsien Gernikan batutako ordezkari.
3. **1342an** Pertsona jakitunak izendatu ostean, eskura izan eben Bizkaiko jaunak, bertako lurraldeko herritarrekin hartu-emonak bideratzeko idatzi zan Bizkaiko foruen lehen ordenamendua (18 kapitulu eta 19 titulu ditu). Horrela idatzi zan lehen foru liburua. Hau izan zan Foru Zaharraren hasierako testua.
4. **1343an** berretsi zan lehen aldiz eta 1376an bigarren aldiz. Foru hau Lurralde Lauko jendearentzako forua zan, hainbat hirik bakoitzak berea eukielako. Halan da be, ez zan erraza gizartea zuzentzea batzuk foru mota batzuk eta besteak (hiriak) beste batzuk izanda.
5. **1394n** Bizkaian Lurralde Lauko Ermandadeak eta Hiriak alkartu eta alkarren artean Foru legea egokitu eta bakarra egitea erabaki eben. 54 kapitulu ditu. Horrela, idatziz jaso ziran ordura arte tradizioz jarraitzen ziran antolaketa-moduak, bizkaitar forudunen bizimodua egokiro zuzentzeko. Bertan, hainbat gauzaren artean lurraldeko alkateak zazpi izango zirala ageri da.

V. BI FORU TESTU:

Goiago ikusi dogu pausoz pauso osotuz joan zala Bizkaiko foruen batuketa. Tradiziozko ohiturak eta ekanduak jaso os-

tean, historiako egoera barriari erantzuteko eran jarri ziran. Horrela, Bizkaiko foruak bi liburu nagusitan batu izan dira:

A) FORU ZAHARRA

1452. urteak garrantzi handia izan eban Bizkaiko Jaurerian. Ordura arte izandako bandoen arteko borrokei amaiera emon jaken. Lehen aldiz Bizkaiko alderdi guztiak bat egin eben eta idatziz jarri alkarren arteko bizitzarako gogoia eta askatasuna onartuz eskubide publiko eta pribatuen adierazgarri ziran legeak, eta bertako Jaunak bete eragiteko konpromisoa hartu eben.

42 urte geroago, FORU ZAHARRA deitu izan danak zuzenketak izan zituan 1394an idatzitako foru-bilduman ilun edo jasobarik geratutako puntuetan, egoera barrira egokituz. Horrela Lurralde Lauak antzinatek zituan eskubide idatzi gabeak airtortzen ziran. Erregeak, Bizkaiko jauna benetan izateko, zin egin behar zituan foruak.

1457ko martxoaren 10ean, zin egin zituan idatzitako lehen foruak Enrike IV.ak Gernikako hiriko Antiguako Andre Mariaren elizan.

1473ko urriaren 14an Gaztelako Erreinuko oinordeko zan Isabelak zin egin zituan eta Onetsi Bizkaiko Foruak, Pribilegioak, Frankiziak, Askatasuna, Ohiturak eta Ekan-duak Arandan.

1474ko abenduaren 11n, Enrike IV.a hiltzean zin egin zituena foruak Gaztela eta Leongo Erregeak eta Bizkaiko Jaunak ziran Fernandok eta Isabelak

1476ko ekainaren 30ean, Fernando Katolikoak Foruak zin egin zituan. Horretarako Bizkaira etorri zan, eta zin egin zituan bera buru zala Arbolaren ondoan dagoan Gernikako Antiguako Andre Maria elizan egin ziran Bartzar Nagusietan.

1483an, Gaztelako Isabelek, bere alaba Isabel lagun ebala, zin egin zituan foruak irailaren 5ean Bilboko Tenderia kaleko Atean; 8an, Portugaleteko hirian; 16an Larrabetzuko San Emeterio eta Zeledonio santuen elizan; 17an Gernikako Arbolaren azpian eta azkenez, Durango hirian.

B) FORU BERRIA

1506ko otsailaren 11n, Gernikan bildutako BATZAR NAGUSIAK Lurralde Lauko bizkaitarren egoeraz jardun izan eben Korrejido-rearekin, egin-eginean be, FORU ZAHARRA egoera barrietara egokitu beharraz.

Zergatik aldatu zan? gizartean aldaketak izan ziralako eta egoera barriei irtenbide barriak emon beharra egoalako. Horretarako foruak ondo ezagutzen zituen legegizonez osoturiko batzorde bat egin eben eta hogeai eguneko epea emon eutsoen, FORU ZAHARRA abiapuntutzat harturik, han jasotzen ziran eskubide, askatasun, ekandu edo ohiturak errespetatuz, gizarte barriari erantzungo eutson testu barri bat egiteko aginduz.

1526an egin zan behin betiko **FORU BERRIA**.

Bertan bizkaitarren betiko askatasunak autortzen dira; baita, Bizkaiko Jaunen betebeharrak be. Foru Zaharreko eskubide guztiak onartuak izan ostean LURRALDE LAUKO bizkaitarrak Bizkaiko Jaunaren oinordeko zan Espainiako monarkiari onespina emoteko bideak zabaldu zituen. Bertan, besteak beste, honakoak ageri dira:

- Gaztelako erregek foruak sinatu behar zituela izendatu osteko hamar urteren barruan, Bizkaiko jauna izendatzea indarrean jartzeko.
- Foruen aurka emondako legeak onartuak izan arren, ez zirala beteko.

- Bizkaitarrak, Bizkaitik kanpora bere kaperadunak edo “jaunak” izango zirala, horrek sortzen zituan eskubideen jabe izanik.

1527ko ekainaren 7an sinatu zituan Karlo V.ak Valladoliden.

Horrela iraun eben mendez mende, **1839ko urriaren 25era arte; data horretan Isabel II.ak** sinatutako klausula baten ondorioz (Onesten dira foruak monarkiaren konstituzioaren batasunaren kaltetan ez diran adinean) indar barik geratu ziran arte. Data horretan, Espainiako gobernuak foruak eta estatutuko gainerako legeak bateratzeko agindu eban, Espainiako Gorteen esku jarritz arazorik sortzen zanean interpretazioak argitzea.

Azkenik indar barik geratu ziran **1877ko apirilaren 26an** gobernuak Bizkaiko Batzar Nagusiak desegin zituanean.

Ehun urte geroago, 1978an Espainiako Konstituzioa onartzean indargabetu egin ziran EUSKAL FORUAK kendu zituan 1839ko eta 1876ko lege biak, barriztatzeko eskumena Euskadiko Autonomia Erkidegoari emonez. Berrizketa hori 1992an egin eban, Eusko Legebiltzarrak.

OHAR BATZUK: aurrera egin aurretik hainbat gauza gogoratu beharra dogu:

- Eztabaida luzeak izan dira historiagileen artean, foruen jatorriari buruz, batez be XVIII. mendean zehar. Estatuaren aldekoak erregeak emondako pribilegioak edo izan zirala defendatu izan dabe. Gehienak, baina, euskaldunak historian zehar mendez mende euren arlo guztietan bizimodua antolatzeke euren buruei ezarritako egiturak zirala.

- 1839ko urriaren 25ean, Gaztelako Isabel II.ak, Espainiako konstituzioaren menpe jarri zituanetik, geroago eta indartsuago ezarri izan dira Euskal Herri osoan Espainiako legeak. Gaur egun, arlo gehienetan Zuzenbide Orokorra (Espainia osokoa) erabiltzen da gure artean.
- Une honetan, bestalde, Euskal Herria Europako Batasunaren barruan izatean, Europako legeak dabe lehentasuna eta horren ondorioz, euskaldunoi foruen hondar batzuk baino ez jakuz geratzen.
- Halan da be, FORUAK euskaldunok herri modura geure bizitza eta etorkizuna antolatzeko daukagun jatorrizko eskubidea gogoratu behar deuskue. Herri askoren modura jokatu eben gure gurasoak, bertako jaunak herriak indarrean jarritako legeak betetzera behartuz
- Harrigarria bada be, foruen etsairik handienak “*Anaitasuna, Askatasuna, berdintasuna*” aldarrikatu dituen Frantziako Iraultza eta haren bidetik etorri ziran Espainiako Gorteak izan dira. Globalizazioak be antzerako zerbait ekarri leikigu, danok danetan, ezelako bereizketa barik, bardinak garela defendatzean.

VI. ARAMAIOK HISTORIKOKI DAUAN GARRANTZIA

Aramaioko historian atzera begiratu gura dogun guztietan, Erdi Aroko mugetaraino heltzen gara. Ezer gutxi dakigu aurreko urteetako bizimoduari buruz. Ez dogu lehenagoko daturik inon aurkitzen. Halan da be, hizkuntzaren ikuspuntutik begirata, izan daikegu historialariak kontatzen deuskuezan datuetatik harago joateko aukerarik.

Batetik, ugariak dira Aramaio Bizkaiari loturik bizi izan zala agertzen deuskuezan hizkuntza-arloko datuak. Aramaion, Debarro osoan zehar dan modura, gaur egun be bizkaieraz egiten

dogu berba. Gehiago be esan daikegu: Arabako antzinako euskara bizkaiera izan zala. Azken urteotan Sakanan eta egin diran hizkuntza-azterketetan oso argi geratu da bizkaieraren presentzia hori. Horrek, antzinako euskal tribuen zabalkunde gaurko lurralde banaketatik aldendua izan zala gogoratzer a eroan behar gaitu.

Hainbat datuk agertzen deuskue, Arabako Aralar aldera zabaltzen dan mendi katea luzearen inguru osoan zabalduta bizi zirala Bizkai aldetik etorritako antzinako tribuak. Toponimiak be argi erakusten deusku bizkaieraren presentzia hori.

Horrez gainera, Erdi Arotik guregana heldu diran datuetan, Aramaio harana Bizkaiko familia boteretsuei (Butroi eta Mujika familiei) loturik ageri jaku. Gatikako lagun gatek eroan ninduan behin, ustekabetxo bat emoteko asmoz edo, Butroiko gaztelu ondoko baserri batera. Eta hara non jartzen dauan baserriko ateburuan: '*Aramaioko jauna*'.

Aramaio barruko auzoen egituraketak be Bizkaiko egituraketa berbera agertzen deusku. Elizateetan batuta ageri dira bertako baserriak. Bizkaiko foru zuzenbidea aitatzen daben historialariak be Bizkaiko Lurralde Lauaren barruan sartzen dabe Aramaio. Beraz, esan daikegu, garai batean Bizkaiko Batzarretan ordezkariak izango zituela. Horrela, Lurralde Lauko bizkaitarrei aitortzen jakezan eskubide eta pribilegio guztiak izango zituen hemengo bizilagunak be. Eta hori ez zan barre egiteko kontua! Jaurerriko pribilegiarik nagusienak hurrengoak ziran:

Edozein bizkaitar noblea (aitoren semea) zan eta titulu horri lotutako eskubideak zituan, baita lurraldetik kanpo Espainiako beste nonbaitera bizitzera joanda be.

Bizkaitarrak ezin ziran epaitu probintziatik kanpo

Ez zituen ordaintzen Batzarrak dohaintza modura baimendutako tributuak baino besterik.

Askatasun osoa eukien merkataritzan jarduteko, eta erregeak ezin eban estankorik ezarri jaurrean.

Herri bakoitzak bere aparteko zergak (arbitrioak) zituan, eta multzo nagusia osotzen ebenak kenduta, askatasunez erabiltzeko eskubidea be bai, kontuak errejidoreari edo haren tenienteari emonez.

Ezin jakon bertan herri enplegurik emon jaiotzez bizkaitarra ez zan inori.

Ezin eban erregeak armadarik bialdu Bizkaira, eta bertako semeek ez eukien lurraldetik kanpo soldadutza-zerbitzua egin beharrik, borondatez izan ezik (askok hala egiten eben).

Erregeak, gainera, ezin eban armadarik eduki bertan. Honen eragina izan eban probintziak sortu ziranean.

Ez eukien herria frantsesen aurka defendatu beharra baino beste betebeharrik.

Erregearen lege orokorrak onetsi beharra eukien, baina foruen aurkakoak ziranean ez betetzeko eskubidea be bai: "pase forala" deitu izan dana.

Errege-aginduak ez ziran indarrean jartzen Diputazioaren onspena jaso aurretik.

VII. ARAMAIO ARABAN:

1489an, Bizkaiko jauntxoek arteko borroketatik eta herrian egiten zituen gehiegikerietatik ihes egin gurean, Aramaioko herritarrak Arabako Ermandadeekin bat egitea erabaki eben. Ermandadeak Aramaio Araba barruan hartzea onartu eben, Aramaioko ohiturak edo ekanduak eta legeak errespetatzeko promesa egin eben. Hori horrela, Bizkaiko Lurralde Lauetako herrietako moduan indarrean jarraitu dabe gaur arte Bizkaiko foruak.

Bizkaiko Foruak Pedro Pujana ohorezko euskaltzain oletarrak euskaratu zituan 1983an. Bizkaiko Aldundiak zidarrezko plaka dotore bat emon eutson honako idazkuna daukana: “BIZKAIKO FORUAREN ITZULTZAILE OSPETSU DAN PUXANA'TAR KEPARI ESKER ONEZ ETA GOMUTAZ BIZKAIKO FORU ALDUNDIAK. 1983GNEKO BAGILAN”. Ahaldun nagusi zan Jose Maria Makua jaunak emon eutson Arteagako Gautegizen.

VIII. AZKEN HAUSNARKETA:

Gai guztioi buruz orain dala gutxi, BERRIAK banatzen dauan *Bizkaiko Hitzan*, 2012ko urtarrilaren 2an, ostiralean, lan luze bat argitaratu zan. Bertan Bizkaiko Abokatuen Bazkuneko Gobernu Batzordeko eta Foru Zuzenbide Zibileko Batzordeko kide dan Gontzal Aizpurua abokatuak dio: “***Bi dira herri baten nortasun adierazle garrantzitsuenak: alde batetik bizkuntza; bestetik, zuzenbidea. Alegia, familia eta gizartea antolatzeke sortzen den sistema berezia***”. Zutabe bi nagusiok gogora ekarri ostein bere lan luzean honelakoak jasotzen ditu:

Ohituretan oinarritutakoa arautzen du foru-zuzenbideak.

Bizkaian, bi zuzenbide zibil daude indarrean: foruetatik datorren foru zuzenbide zibila eta Espainiako zuzenbide zibil orokorra. Eskubide eta betebeharrak ezberdinak aitortzen ditu baikoitzak. **Lurralde bakarra, bi auzotasun.**

Auzotasun bat edo beste lortzeko hiru bide daude: a) nagusiki jaiotzez. b) ethez aldatuz gero, hamar urteko egotaldiarekin. b) bi urtez leku batean bizita, erregistro zibilean txostena irekiz ere lor daiteke.

Ordena jartzeko beharrezana.

BERRIA egunkarian argitaratuko artikulu horretan beste hau be esaten da: **Bizkaiko Foru Zaharra idatzi zenetik, oso gu-**

txi eraldatu dute foru zuzenbide zibila, 1992an egin zen gaurko-tze orokor bat, baina moldaketa sakon baten premia dauka oraindik, egungo gizartera egokitzeko.

IX. ERANSKINA:

Aurrekoa irakurri dozuenentzat interesgarria izango dalakoan, aitatu barri dodan BERRIA egunkariko artikuluan azaldu-ta ageri diran foru zuzenbidezko oinarrizko berben azalpenak eskaintzen deusuedaz, argibide izango dituzuelakoan.

1. Tronkalekotasuna. Bizkaiko foru zuzenbidearen ezaugarri-rik adierazgarrienetakoa da. Zuzenbide zibil orokorrak, or-dea, ez du halakorik. «Jabetzak zeukan izaeraren arabera –ko-lektiboa eta ez indibidualista–, ondasun batzuk familiari lotu-ta daude; familiarenak dira, eta familian jarraitu behar dute». Tronkalekotasun horrek oinordekotzari eragiten dio, testamen-tu bidezkoan eta testamenturik bakoan; baina baita eskualda-ketetan ere. Tronkaleko senide batzuek ondasunok eskuratzeko eskubidea dute, tronkalekoak ez diren beste senide batzuen aurretik; ezkontidearen aurretik, esaterako. Foru zuzenbide zibilaren mendeko herri batean higiezin bat duenaren adibi-dea jarri du Aizpuruak. «Ondasun hori aurretik badatorkit, fa-miliarena izandakoa bada, derrigorrez nire familiakoei utzi behar diet, nahiz eta, semealabarik izan ez dugunez, testa-mentuak esan alargunari utzi diodala ». Kasu horretan, seni-deok testamentua deuseztatzeko eskatu, eta ondasunaren jabe egin daitezke. Eskualdakketetan ere beste horrenbeste gertatzen da. Erosteke, lehenbaita dute tronkalekotasunaren parte di-ren senideek, eta, saldu aurretik, asmo horien berri eman behar zaie, notario bidez. Jakinarazpenik egin gabe, senideek eskubidea dute salerosketa hori deuseztatu eta bidezko tasazio prezioan eskuratzeko. «Egun, bada salbuespen bat: hiri lur di-

ren guneetan eta birigintza planaren arabera hiri lur biburtuko diren guneetan, ez dago lehentasun eskubiderik».

2. Oinordekotza. *Foru zuzenbide zibila ezartzen zaien bizkaitarrek, oinordekotza antolatzerakoan behartuta daude ondorengoei ondasunen lau bosten uztera. Zuzenbide zibil orokorrean, berriz, seniparte horrek bi herenekoa izan behar du. Seniparte aurrekoek edo arbasoek hartuz gero, horiei erdia uztera behartzen dute bi kode zibilek. Ezkontideak eta izatezko bikotekideak, alargun geratzerakoan, eta ondorengoak edota oinordekoak bizi badira, ondasunen erdiaren gozamina izango luke foru zuzenbidean. Alarguna hildakoaren gertuko senideekin bakarrik geratuko balitz –alegia, neba-arrebak, izeko-osabak, lehengusu-lehengusinak...–, aurrekorik eta ondorengorik gabe, ondasun guztien bi herenen gozamen izango luke. Zuzenbide zibil orokorrean, berriz, alargunak, ondorengorik baldin badago, heren baten gozamina izango luke, eta, gainerako kasuetan, osoa. Foru zuzenbide zibilean, seniparte kolektiboa da. «Askatasun osoa dago derrigorrez utzi beharrekoa nahi bezala banatzeko ondasunak jasotzeko eskubidea dutenen artean. Adibidez, seme-alabetako bakarrari utz diezaiokezu ondasunen lau bosten, eta besteei ezer ez», azaldu du. Zuzenbide zibil orokorrean, ostera, denei eman behar zaie zerbait. Zuzenbide baikoitzak bere printzipioak ditu: «Gurean, helburua beti izan da ondasunak osotasunean transmititzea, ahal den neurrian. Adibidez, saibestu nahi izan da ustiategiak zatitzea».*

3. Alkar-poderosoa. *«Gure erakunde zibiletan, izarra da». Bizkaian asko erabiltzen den testamentu mota da alkar-poderosodelakoa –eskuordetza bidezko testamentua–, eta mendetan ere asko erabili da. Zuzenbide zibil orokorrean debekaturta egon arren, zuzenbide zibil orokorra aplikatzen zaien biz-*

kaitarrek erabil dezakete; balere, eskuordekoaren abalmenak ezberdinak dira foru zuzenbide zibilak bizkaitar forudunen-tzat ezarritako eskuordetza bidezko testamentuak ezarritakoe-kiko. Zer da, bada, testamentu mota hori? «Pertsona batek bere ondasunak banatzeko boterea ematen dio konfiantzazko beste pertsona bati; normalean, ezkontideari edo izatezko bikoteari. Botere hori jaso duenak, bizi den bitartean, bildakoaren onda-sunen gozamina eta administrazioa izango ditu». Aizpurua-ren esanetan, hainbat helburu ditu. Batez ere, ezkontidea ba-bestea tronkalekotasunak eragin diezazkiokkeen kalteetatik. Ha-la, adibidez, gerta daiteke alargunak bizileku duen etxea utzi behar izatea, tronkalekotasunaren izenean. Eskuordetza bi-dezko testamentuari esker, halakoak saihestuko lituzkete. Ho-rrez gain, oinordekoen senipartea hobeto banatzea ere lortu nahi da. «Hil denak testamentua egin zenean baino informa-zio gehiago du alargunak. Adibidez, seme-alabetako batek bes-teek baino behar gehiago izan badu, ondare gehiago uzteko aukera izango luke, edo etxeko ustiategiak arduratzen hasi de-nari ustiategiaren jabetgoa uztekoa».

4. Oinordetza itunak. Ondasunen jabeak, bizi den bitar-tean, bana ditzake jarauspena, senipartea eta ondasun zeha-tzak derrigorrezko oinordekoen artean, onuradunekin hartu-tako kontraprestazio akordio baten arabera –adibidez, bizi den bitartean ondasun horien gozamina izatea–. Zuzenbide zibil orokorrean debekatuta dago halakorik. Debekatuta dau-de, era berean, elkarreko testamentuak. Dena den, azken ho-riek –testamentua elkarrekin egitea–, ez dira asko erabiltzen foru zuzenbide zibilean.

5. Foru komunikazioa. Bizkaiko foru zuzenbideak jaso-tzen duen ezkontzaren ondasun jaurpidea da. Bikote bat ez-kondu edo izatezko bikote egiten bada, eurek erabakitzen du-

te ondasunak nola erregulatu. Ezer itundu ezean, bizkaitar forudunei foru komunikazioa ezarriko zaie. Alegia, ondasun guztiak, bienak, batak zein besteak ekarritakoak, bienak izango dira. Erregimen horrek oinordekotzarekin dauka lotura. «Alarguna bien seme-alabekin geratzen denean aplikatzen da foru komunikazioa; ondasunak erdibitu egiten dira: erdia, alargunarentzat; beste erdia, seme-alabentzat». Gainera, normalean, eskuordetza bidezko testamentua eginda izan obi dutenez, seme-alaben esku geratu den erdi horren gozamina ere alargunak izango luke.

ONDORIOAK: ordena jartzeko beharrezana.

Bizkai osoan, foru zuzenbide zibila egon da indarrean, betidanik. Baita 1552an Batzar Nagusiek Bizkaiko Foru Zaharra idatzi aurretik ere. Baina, XII. Mendean, hiribilduak sortzen hasi ziren, eta Bizkaiko jaun eta andreek aparteko foru bat ematen zieten, Gaztelakoa. Hala, hiribilduetan Gaztelako erresumako zuzenbidea ezartzen zen –egungo Espainiako zuzenbide zibil orokorra–. Beraz, elizate izandakoetan foru zuzenbide zibilari eusten diote, eta hiribilduetan eta Urduñan, zuzenbide zibil orokorrari. Hala ere, Aizpuruaren esanetan, banaketa ez zen hain erraz izan.

“Hiribildu horien garapen urbanistikoaren ondorioz, handituz joan zen zuzenbide zibil orokorraren ezarpen eremua, eta, foru zuzenbide zibilarena, murrizten. Mugak aldatuz joan dira”. Eta, gaur egun ere, horren guztiaren ondorioz, korapilatsua da banaketa. “Hiribildu horietako leku batzuetan, Bizkaiko foru zuzenbide zibila ezartzen da oraindik. Herri baten barruan, kalearen eta atariaren arabera, ezberdina izan daiteke aplikatzen den zuzenbidea”. Hala, posible da kale bereko bi herritar bata foruduna eta bestea forubakoa izatea.

Hori eta bestelako nahaste ugari konpontzeko, 1992an egokitzen saiatu zen Eusko Legebiltzarra. Ordura arte, hainbeste

mendetan, 1526an Bizkaiko Foru Berria idatzi zenean baino ez zen egokitu Bizkaiko foru zuzenbide zibila, erakunde politiko propioen bitartez,. Uztailaren 1eko Foru Zuzenbidearen Legeak arautu zituen, beraz, Araban, Bizkaian eta Gipuzkoan indarrean dauden zuzenbide zibilak. Izan ere, gaur egun, lau auzotasun daude hiru herrialde historikoetan. Bizkaian bi auzotasun egoteaz gain, honelakoa da egoera: Gipuzkoa osoan zuzenbide zibil orokorra dago indarrean, baina, baserrietan Gipuzkoako foru aplikatzen da; Arabana ere zuzenbide zibil orokorra dago indarrean, Aiaraldean, Laudion eta Aramaion izan ezik. Aiarak foru berezi bat dauka, askoz ere askatasun handiagoa ematen duena. Esaterako, ondasun guztiak nahi zaionari uzteko eskubidea aitortzen du, seniparterik ezarri gabe.

Saioak eta proposamenak:

Bizkaian dauden bi zuzenbide zibil horien ezarpen esparruak zein ziren finkatzen saiatu ziren 1992ko lege horren bidez. Halere, erreforma sakon baten beharra dago oraindik. Hainbat saio egin dira. Eusko Legebiltzarrean ponentzia bat egin zen 2008an, baina oraindik ez du fruiturik eman. 2000. urtean, Euskalerrriaren Adiskideen Elkarteak lege proiektu bat hasi zuen, eta gero Zuzenbidearen Euskal Akademiak hartu zuen. Proposamenak aldaketa nagusi batzuk jaso ditu.

Batetik, auzotasun bakar bat eratu nahi da, Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako herritar guztiek eskubide eta betebeharrak berberak izan ditzaten. Hala ere, proposamen horren arabera, salbuespenei eutsiko litzaieke: Bizkaian tronkalekotasuna –murriztuago bada ere–, Aiaraldean oinordekotzetako askatasun erabatekoa eta Gipuzkoako baserrietako foru zuzenbidea.

Horrez gain, proposatzen du senipartea murriztea –ondorengoena, lau bostenetik bi herenera edo heren batera– eta, kasu batzuetan, kentzea –aurrekoenean–. Gertuko tronkaleko senideen eskubideak murriztea ere proposatu da. Gainera, ezkontidearen eskubideak indartzeko ere eskatzen du, tronkale-

kotasunak hainbesteko kalterik egin ez diezaion. Adibidez, nahiz eta eskuordetza bidezko testamentua eginda ez eduki, ohiko etxebizitza denean alargunak horren gozamenerako eskubidea izatea nahi dute. Gainera, nahi dute Bizkaitik kanpo zuzenbide zibil orokorraren mende daudenek ere eskubidea izatea eskuorde bidezko testamentua egiteko.

Bada premiazko beste aldaketa bat. Dibortziatu gabe banatzen diren bikoteen kasuan, bikotekide izandakoak senipartea jasotzeko eskubidea izango du. Hala da tratu txarreatik banatu direnenekin ere. Zuzenbide zibil orokorrak debekatua du, halakoetan, senipartea jasotzeko eskubidea.

* * *

Orain Andres Urrutia jaunak argituko deusuez Foru Zuzenbidearen gorabeherak zelan betetzen diren. Teoriatik praktikara aldatzeko emon beharreko pausoak argituko deusuez, Araban indarrean diren Kode Zibil arruntaren eta Foru Zuzenbidearen arteko aldeak agerian jarritz.

Patxi Uribarren Leturiaga